

## **Martin Bühler**

Europako Ekimen eta Erreferendumetarako Institutuko (IRI Europe) idazkari nagusia da. “IRI Europa”k herri-ekimenezko prozesuekin eta Europan gaur egun dagoen joerarik indartsuenarekin, referendum process (I&R), delakoarekin, zerikusia duten alderdi guztien gaineko albisteak, gertakariak eta komentarioak jakinarazten ditu.

2001ean sortu zen, Zuzeneko Demokraziari buruzko ikerketa eta heziketarako lehenengo europar institutua bilakatzeko helburuarekin. Xedetzat du, Europa osoan herri-ekimenaren eta erreferendumaren gaineko informazio ez-alderdikoia ematea: gertakarien berri, albisteak, oro har, eta haiei buruzko azterketak egitea.